

Testuinguru erdalduneko D ereduko ikastola bateko gurasoen familia hizkuntza-politika eleaniztunak

Tesiaren egilea: Maite Garcia Ruiz

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Soziolinguistika

Tesi-zuzendaria: Ibon Manterola eta Ane Ortega

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) euskararen erabile-rarako mesedegarria ez den testuinguru bateko hemeretzi Familia Hizkuntza Politika (FHP) eleaniztun aztertzen dira.

Jakina da familiaren eremua hizkuntzen biziberritze-prozesuan garrantzi handikoa dela (Fishman, 1991), eta FHPen ildoak familian zentratzeaz gain, hizkuntza-politikaren markoan oinarritzen da. Spolskyren (2004) hiruko ereduan oinarrituta, hizkuntza-politikak honako hiru elementu hauek aztertuta ulertu eta operatibizatu daitezke: hizkuntza-ideologiak, hizkuntza-kudeaketa eta hizkuntza-praktikak. Lan honek hiru elementu horietan banatzen ditu helburuak, emaitzak eta ondorioak FHPen konplexutasuna bere osotasunean erakutsi ahal izateko EAEko testuinguru honetako familiek kontuan hartzen dituzten hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) zentratuz.

Hizkuntza-politikaren ildoak hizkuntza-sozializazioaren paradigmarekin konplementatzen da tesi honetan. Izan ere, hizkuntza-sozializazioak kontuan hartzen du hizkuntza sozializazio-egoeretan jabetzen eta erabiltzen dela. Hortaz, familiaren eremuan erabili ohi izan den «transmisio» hitzaren noranzko eta norabide bakarreko esanahi tradizionala motz geratzen da eta ezin ditu familia barruan gertatzen diren dinamikak sakonki aztertu, ezta ulertu ere (Kasares, 2014).

Tesi honetan gurasoek euren seme-alabak euskara, gaztelania eta ingeles eleaniztunak izateko izan dituzten hizkuntza-praktikak, hizkuntza-kudeaketa eta hori diseinatzeke zer hizkuntza-ideologiatan oinarritzen diren aztertu da hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik. Elementu horien azterketa metodologia kualitatiboan oinarrituta egon da, hain zuzen ere, 2 eztabaida-taldetan eta 17 elkarrizketa sakonetan.

Emaitzek erakutsi dute guraso horiek eleaniztasunaren aldeko jarrera argia dutela, baina betiere, euskara erdigunean duen eleaniztasuna bada. Izan ere, euskarari balio identitario eta performatiboa atxikitzen diote euskaraz dakiten zein

ez dakiten gurasoek. Horrez gain, bizi diren testuinguruaren kontzientzia erakutsi zuten gaztelaniaren erabilera eta gaitasun altua bermatuta dagoela baieztatzen zutenean, eta horregatik askotan gaztelania ez zen esplizituki agertzen gurasoen diskurtsoetan. Ingelesari dagokionez, neurri ezberdinetan agertzen bazen ere, guraso guztiek kontuan hartzen zuten euren FHPetan, guztiek hausnartu baitzuten seme-alaben ingelesaren ikaskuntzari buruz.